

Konpromisoa hartzen dugu kalitate handiko euskara-irakaskuntza eskaintzeko, ikaslearengan zentratua eta gure ikasleen beharrak asetzerantz bideratua. Horretarako, metodo eta material berritzaileak eta eraginkorrak erabiltzen ditugu, laguntza pertsonalizatua ematen dugu eta haien parte-hartze aktiboa sustatzen dugu.

Ahalegina egiten dugu ikaskuntza-giro positibo, atsegin eta aberasgarria sortzeko, horrek lagundu egingo baitie gure ikasleei beren helburuak lortzen.

Komunikazio-bide argiak eta eraginkorrak ezartzen ditugu (posta elektronikoa, ohar-taulak, web-orria, Google Classroom...).

Etengabe bilatzen ditugu gure zerbitzuak hobetzeko modu berriak, xedea izanik bai gizarte osoaren bai, bereziki, gure ikasleen beharrez aldakorretara egokitzea.

Tutoretzak, aholkularitza akademikoa eta baliabide osagarriak eskaintzen dizkiegu ikasleei, beren helburuak lortzen laguntzeko.

Irakasleek formakuntza jasotzen dute ikasleei arreta pertsonalizatuagoa emateko eta metodologiaren azken joerak ezagutzeko.

Ikasleen aurrerapena aldizka ebaluatzen dugu, atzeraelikadura eraikitzailea eskainiz eta programazioa beharren arabera doituz.

Aktiboki hartzen dugu parte euskararen sustapenean, dagozkion erakunde eta organismoekin lankidetzan.

Euskaltegiari aplikatu dakizkiokeen lege eta araudi guztiak betetzen ditugu, eta giro seguru eta kalitatezkoa bermatzen dugu. UNE-EN ISO 9001:2015 araua hartzen dugu erreferentziazat, gure kudeaketa-sistemaren etengabeko hobekuntza bermatze aldera. Era berean, konpromiso irmoa erakusten dugu laneko arriskuen prebentzioarekin eta berdintasunarekin.

Gure euskaltegiaren etengabeko hobekuntzan parte hartzerantz gonbidatzen dugu hezkuntza-komunitatea/ikasle-komunitatea, oro har, nola-eta ideiak eta iradokizunak partekatuz. Uste osoa dugu euskararako etorkizun sendo bat eraiki dezakegula Bilbon.

Kalitate-politika hau konpromiso bizia da, eta etengabe aldatzen ari da. Aldian behin berrikusi eta eguneratuko dugu, gure praktikak eta asmoak islatzen dituela ziurtatzeko.

**Bilbon, 2024ko ekainaren 28an
Zuzendaria**